

VISIT-

DONOSTIAKO TURISMO
JASANGARRIAREN PLANA
2023-2027

BIZI

**GUZTIONTZAKO
PLANA**
DONOSTIARRON
BIZI-KALITATEA
DA ABIAPUNTUA

TURISMOA SUSTATZETIK TURISMOAREN KUDEAKETA INTEGRAL ETA JASANGARRIRA.


Azken urteotan **aldaketa sakonak izan ditugu maila globalean, Donostiako** sektore turistikoan ondorioak dituztenak. Hainbat erronkari egin behar diegu aurre: koronabirusaren krisialditik indarberritzea, gure jarduera garapen jasangarriarekin lerrokatzea, larrialdi klimatikoa kudeatzea eta hiriaren oparotasunari eustea.

Turismo-jarduerak helmugako eremu askotan izan dezake eragina, eta, horregatik, beharrezkoa da **zeharkako ikuspegitik** lantzea, zenbait kudeaketa-eremu kontuan hartuta, hala nola iraunkortasuna, kulturaren babesa edo tokiko komunitatearen garapen sozioekonomikoa.

Visit Bizi plan berri hau aurreko turismo-planaren jarraipena da, baina turismoak hirian duen eragina **kudeatzeari** garrantzi handiagoa ematen dio. Bisitarien hazkunde-mailari begiratzen ez dion plana da, eta herritarren, bisitarien eta sektorearen arteko oreka eta ongizatea lortzeko neurriak sustatzen ditu.

Azken finean, eredu turistiko berri bat, **jasangarritasunean** eta **parte-hartzean** oinarritua, **guztionezako turismo atseginagoa** lortzen lagunduko diguna.

PLAN HONEN HELBURUAK



Hiriaren
oparotasuna
+
Donostiarren
ongizatea

2

Jasangarritasuna:

Ekonomikoa
Soziala
Ingurumenekoa

3

Oreka:

Herritarrak
Bisitariak
Turismoko sektorea

4

Lehentasunak
aldatzea: **Turista-
kopuruaren
ordez**, turismoaren
kalitatea

VISIT BIZI TURISMO
JASANGARRIAREN PLANA
(2023-2027) DONOSTIAKO
PLAN ESTRATEGIKOAREKIN
ETA INGURUMEN-PLANAREKIN
LERROKATUTA DAGO

01

TURISMOA MUNDU MAILAKO JOERA GELDIEZINA DA. ONDO KUDEATZEA FUNTZEZKOA DA HIRIAREN ETA HERRITARREN ONGIZATERAKO.

2022ko DATUAK

1,7 MILIOI OSTATU-GAU

% 16

bisitari gehiago (vs. 2019)



% 65

Batez besteko okupazio-tasa, gelako

10etik 8,98

Bisitarien gogobetetze-maila



155

MICE ekitaldi (Meetings, Incentives, Conferences, Exhibitions) egin dira, eta 45.964 lagunek hartu dute parte

Nazioarte-mailakoak dira

biltzarren % 60

eta pizgarri-bidaien % 72



* Iturriak: EUSTAT, DSSTurismoa, DSSTurismorako Datakey Estudioa.

GAUR EGUN, GUZTIOK GARA TURISTA_

Urterik urte ari da areagotzen turismoko joan-etorrien kopurua, zenbait arrazoi direla medio: onlineko ekonomiaren eredu berriak, adinekoenen bizikaltatea hobetu izana eta bidaien demokratizazioa.

Koronabirusaren krisiak eragindako geldialdiaren ondoren, 2022an nazioarteko bidaiak berreskuratzen dira, eta gure hiria ez da joera horretatik kanpo geratzen.

Bidaiatzeko modua aldatzen ari da.

_ **Eskariaren aldaketak:** Belaunaldi aldaketak, kontsumo ohitura berriak, esperientziak bilatzea, benetakoa eta tokikoa, iraunkortasunarekiko kezka.

_ **Eraldaketa teknologikoa eta digitala:** Erabiltzailea sistema erdian kokatzen da eta eragiteko ahalmena bisitariei dagokie.

_ **Ingurumen-erronkak:** Gehiegizko kontsumoa, baliabideen ustiapena, hondakinen ekoizpena...

Errealitate horri ez ikusiarena egin beharrean, kudeatu egin behar dugu, eta datozkigun erronkei ekin:

Partaidetzan oinarritutako

gobernantza (herritarren parte-hartzea, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzara...)

Klima-aldaketa eta deskarbonizazioa

Ekonomia zirkularraren printzipioak aplikatzea

Erabakiak hartzeko, **ezagutza eta monitorizazioa**

Turismoaren jasangarritasunari buruzko trebakuntza eta komunikazioa

Arrakastaren definizioa egokitzea

Eskubideak eta berdintasuna turismoaren sektorean

EUOPARREN %82 PREST DAGO BIDAIATZEKO, OHITURAK ALDATZEKO ETA JOKABIDE JASANGARRIAGOEI EKITEKO.

*Iturria: 2021eko Eurobarometroa.

GURE HIRIRAKO AUKERA PAREGABEA_

Turismoa da Donostiari ekarpen handiena egiten dion sektoreetako bat. Herritar guztiarentzat **garapena** eta **ongizatea** erakartzeko aukera bikaina. **Enplegua** eta **ekintzaitza** sustatzen ditu, eta, gainera, biltzar-turismoaren bitartez, gure **industria, enpresak eta I+G+Ba suspertzen** ditu, talentua eta berrikuntza gureganatzen ditu, eta gure hiria nazioartean posizionatzen du.

Bestalde, **euskal kultura**, hizkuntza eta nortasuna mundu zabalera hedatzen ditu, eta beste errealitate zein pizgarri kultural batzuekin harremanetan jartzen gaitu.

Hainbat sektore barne hartzen dituen jardura deslokalizaezina.

Industria lokalizatua da turismoa, eta **tokiko ekoizpen-sistema osora hedatzen da** bisitarien gastua. Ostalaritzarekin eta ostatatzearekin lotu ohi da —sarritan— turismoa, baina Donostian **sektore ugaritako ekintzaile eta enpresetan eragin oso esanguratsua du**, zuzenekoa zein zeharkakoa: museoak, ekipamendu kulturalak, merkataritza, turismo-gidariak, ikerketa-zentroak, ospitaleak, bilera-turismoarekin lotura duten sektore askotako enpresak, bisitariei zerbitzuak eskaintzen dizkieten enpresa txikiak, beren produktuak jatetxeei saltzen dizkieten nekazariak, abeltzainak eta arrantzaleak eta abar eta abar.

**MENDE BAT BAINO GEHIAGOKO TURISMOARI
ESKER, HIRI BIZIA DUGU GAUR EGUN, HIRI
HANDIEN MAILAKO AZPIEGITUREKIN ETA
KULTURA- ESKAINTZAREKIN**

TURISMOAK HIRIAN DUEN ERAGINA

HIRIKO BPG-AREN

13,9%

1065 MILIOI €

+ 15.000



ENPLEGUTIK
GORA

Bertako ETEak dira turismo-sektorearekin
lotutako Donostiako enpresen

95%

TURISTAREN ERAGIN
EKONOMIKOA

243,80

MILIOI €

204,7€ 975,1€

EGUNEKO ETA
TURISTAKO
GASTUA

TURISTA
BAKOITZEKO BABES
BESTEKO GASTUA,
GUZTIRA

VISIT-

DONOSTIAKO TURISMO
JASANGARRIAREN PLANA
2023-2027

BIZI

ZER DIOTE DONOSTIARREK?

1 Donostiarren **% 85**^{ak} uste du oro har **onuragarria dela turismoa herritarrentzat.**

2 **% 70**^{ak} dio garrantzitsua dela turismoa hiriarentzat, eta lagundu egiten diola haren **garapen ekonomikoari.**

3 Donostiarren **% 65**aren iritzia, **«turismoaren sabaia» jo du** jada hiriak.

JARDUTEKO BEHARRA BABESTEN DUEN ERREALITATEA_

_ **Txangolariak.** 2015az geroztik, % 50 igo da turismo-bulegoak artatzen duen txangolarien kopurua. Inpaktu handia dute txangolariek hiri-espazioaren okupazioan.

_ **Hotel berriak.** Azken bost urteotan 30 bat hotel berri ireki dira; hotel-gelen kopurua, berriz, % 36 igo da.

_ **Etxebizitza turistikoak.** 2023an erabileratza turistikoak 1355 etxebizitza daude, hau da, %8,4 gehiago 2017aren aldean.



_ **Bisita gidatuak eta free tourrak.** Nabarmen areagotu da azken urteotan talde jendetsuen bisita-kopurua.

_ **Mugikortasuna.** Auto partikularretan iristen da hirira bisitarien % 65a.

_ **Turistifikazioa.** Turismoaren presioa nabari da hiriko zenbait eremutan: Parte Zaharra, Zabalgunea, Kaia eta Gros.

Turismo-eredu jasangarri bat

Txangolariak: Eguneko bisitariak
Turista: Gava igarotzen duena
Bisitaria: Biak. Egunez eta gauzez bisitatzen gaituztenak





02 —

ZER TURISMO-EREDU NAHI DUGU DONOSTIARENTZAT?

garatzea da planaren helburua.

Haren lehentasuna ez da bisitari-kopurua, kalitatea baizik. Turismoaren aukerez baliatu nahi da, baina publiko estrategiko batzuegana zuzenduta. Egia da, bestalde, ez dagoela kalitateko turismorik, helmugako espazio publikoa **ondo araututa** ez badago eta **hiriaren nortasuna** sendotzen ez bada.

Lehenik eta behin, donostiarren bizi-kalitatea bermatu behar da. Hiri jator bat, biztanleei bizi-kalitatea eskaintzen diena, erakargarria izango da bisitariarentzat ere.

Funtsezko bost ardatz hauen inguruan egingo dugu lan:

01 JASANGARRITASUNA

Soziala, ingurumenekoa, ekonomikoa.

02 OREKA

Hiritarren, bisitarien eta enpresen artean.

03 KALITATEA

Kalitateko bizi-tza, bisita eta hiria.

04 BENETAKOTASUNA

Nortasuna eta kultura, euskara eta tradizioak, berezitasuna.

05 PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA

Hiritarrak, bisitariak, sektore publikoa, sektore pribatua.

HELBURUA EZ DA BISITARI- KOPURUA HANDITZEN JARRAITZEA

BIDE BAT HAUTATU DUGU_

Gure xedea:

_ Helmuga turistikoa izatea, non bisitariak orekaz jarduten diren Donostiako lurraldean, ekonomian eta gizartean; hiriaz goatzeko aukera eskaintzea bisitariari — donostiarrak balira bezalaxe—, betiere **jasangarritasuna** eta **errespetua** aintzat hartzen dituztela.

_ Gure bisitariari eta herritarrei eskaintzen diegun **balio-proposamena** mantentzea eta hobetzea.

_ **Ostatatze-eskaintza arautua** izatea.

_ Baliabide turistikoa berriak eskaintzea **auzoetan eta lurralde** historikoan.

_ Erreferentziazko eredu izatea Europako **kalitateko hiri-turismo jasangarriari** dagokionez.

_ **Hiriaren nortasunari eta izaerari eustea**, bai eta ezaugarri ditugun sinbologia eta irudiei ere.

_ **Klima-larrialdiari** aurre egitea. Ez da eraberritzerik izango ez badiogu proaktiboki ekiten.

_ **Partaidetzan oinarritutako gobernantza** aldarrikatzen dugu, hau bultzatzen duena: herritarren esku-hartzea (batzuetan, baita bisitariena ere) eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzeta.





VISIT-

DONOSTIAKO TURISMO
JASANGARRIAREN PLANA
2023-2027

BIZI

NOLAKO TURISMOA INTERESATZEN ZAIGUN_

BAI

_ **Bizipen bila datozenak:** Hiria sakon ezagutu eta bertako biztanleekin jardun nahi duten bisitariak.

_ **Gure bisitariak:** Gurekin ondo moldatzen eta Donostiara ondo egokitzen direnak, bertakoak estimatzen dituztenak.

_ **Bisitari adeitsuak, ingurumenarekiko dugun konpromisoarekin bat datozenak:** Jokabide adeitsua eta jasangarria dutela datozenak, hirian ibiltzera eta hartaz gozatzen.

_ **Balio erantsi handiko turismoa:** Bisita baliotsuak dakartzaten jarduerak, hiriari presio txikia eragiten diotenak: MICE turismoa, turismo gastronomikoa, kulturala, premiuma eta abar.

_ **Hirirako estrategikoak diren merkatuetako bisitariak:** Bertakoak, ingurukoak, espainiar estatukoak, Frantzia, Erresuma Batua, Irlanda, Alemania, Italia, Belgika, Herbehereak eta Europako iparraldeko herrietakoak, AEB, Kanada, Mexiko, Japonia eta Koreakoak.

MICE: Meetings, Incentives, Conferences, Exhibitions

EZ

_ **Turismo masiboa:** Gurutzaontzi handiak; festa-, mozkorkeria-, eguzki- eta hondartza-turismoa.

_ **Egokitzen ez diren turistak:** Euren ohituretara egokitu gaitezten agintzen digutenak, eta bertako bizimodua partekatu eta ezagutu nahi ez dutenak.

_ **Talde handiak eta bat-batekoak:** hiriarekin ia batere harremanik izan ez eta, gainera, kolapsatu egin dezaketenak.

IKUSPEGI BERRI BAT

Honetan oinarritua

KALITATEA - KANTITATEAREN gainetik
OPAROTASUNA - ERRENTAGARRITASUNAREN gainetik
SLOW IKUSPEGIA - AZELERAZIOAREN gainetik

GURE IBILBIDE-ORRIA



01

OSTATUA ERREGULATU. DENAK EZ BAITU BALIO_

Inguru jakin batzuetan pilatzen dira turismoarentzako ostatuak, edonolakoak direla ere; auzo horietako zenbait biztanlek, berriz, kanporatuak izateko arriskuan ikusten dute beren burua.

Jarduera hori behar den bezala arautatu behar dugu. Herritarrengan inpaktu kaltegarririk izan ez dezan; hori dela eta, datuak auzoz auzo aztertzen jarraituko dugu, inguru aseetan ez dadin ostatu gehiagorik ireki (hotelak, aterpeak, etxebizitza turistikoak eta abar).

Ostatatzea arautzeko zenbait ekimen ari gara bultzatzen.

_ Plan Orokorrenen aldaketa onartzen den arte, **ez da emango hotel edo etxebizitza turistiko berririk irekitzeko baimenik**, ezta lehendik martxan zeudenak handitzeko aukerarik **hiriko hainbat ingurutun**; hots, Antigua- Ondarreta, Ategorrieta- Ullia, Erdialdea, Gros eta Ibaeta.

_ Hiriko **gainerako auzoetan**, berriz, **ez da baimenik** emango **etxebizitzak eraikitzeko partzeletarako**.

_ Arau horretatik kanpo utzi da **Parte Zaharra**, lehendik ere inguru asetzat jotzen baitzen, eta 2020an araututako ostatatze-erabileren muga aplikatzen zaio.

_ Bestalde, erabilera turistikorako etxebizitzak arautzeko ordenantza berri bat ari da prestatzen **Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean**.

02

BISITAK URTEAN ETA LURRALDEAN ZEHAR BANATU_

Bertako biztanleok, turistek eta txangolariak partekatzen ditugu hiriko kaleak. Hori dela eta, jende-pilaketak sor daitezke, batez ere une eta leku jakin batzuetan.

Mugatua denez bisitariak hartzeko hiriak duen gaitasuna, jende-oldea hobeto banatu behar da, bai denboran zehar, bai lurraldean.

Zenbait bide ari gara jorratzen hori lortzeko.

_ **Goi-denboralditik kanpo** sustatzea turismoa, publiko estrategiko batzuei berariaz zuzendua, gure balioak bultzatuz eta jasangarritasunaren alde dagoen kalitateko helmuga turistiko gisa jardunez.

_ Beste inguru erakargarri batzuk suspertzea, hiriko eta lurralde historikoko **beste eremu** batzuk dinamizatzeke.

_ **Bisitariak hartzeko bulego berria sortzea**, handiagoa eta modernizatua, ohiko inguruneetatik kanpo eta lurralde osoan, antolatzen diren ekimenen erakusleho izan dadin, webguneko eta sare sozialetako informazioarekin batera.

_ **Jende-kopurua mugatzea** bisitaldi gidatuetan.

_ **Megafonia eta bozgorailuak debekatzea** taldeen bisitaldietan.

_ Aldi berean inguru berean egon daitekeen **talde-kopurua mugatzea**.

03

HIRIRAKO SARRERA
ETA HIRIKO
MUGIKORTASUNA
HOBETU_

Hirian gabiltzanean, bertakoekin eta bisitariekin ez ezik beste zenbait jenderekin ere partekatzen ditugu kaleak: hemen lan egiten dutenekin, hornigaien eta zerbitzuen banatzaileekin... Mugikortasun-sistemak gai izan behar du jende asko pilotzen denean sortzen diren tentsioak menderatzeko.

Bestalde, hirira etortzeko ahalik eta biderik jasangarrienak sustatuko dira, ingurumen-jasangarritasunaren aldeko irizpideei jarraikiz.

Dagoeneko bultzatzen ari garen zenbait ekimen.

_ **Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planean txertatzea turismoaren** sektoreko dinamikak.

_ Taldeak garraiatzen dituzten **autobusak erregulatzea**.

_ **Denbora errealean eta aldez aurretik hobetzea gai hauei buruzko informazioa:** Donostiarako sarbideak, hiriko mugikortasuna eta aparkatzeko aukerak, aparkalekuen okupazio-maila...

_ **Disuasio-aparkalekuak** martxan jartzea, hiriko erdigunera joateko autobusak dituztenak.

_ Donostiara etortzeko **garraio-bide jasangarrien** erabilera sustatzea (trena, autobusa eta abar).

_ **Autobus zein tren turistikoa** eta oinezko ibilaldiak bultzatzea, bai eta **garraio-bide jasangarriak** ere (autobusa eta bizikleta, esate baterako).

04

BEREZIKI ZAINDU
PARTE ZAHARRA,
ZABALGUNEAREN
EKIALDEA, KAIA
ETA GROS_

Parte Zaharra da Donostiako aisiagune tradizionala, eta giza presioa gehien pairatzen ari dena.

Funtsezkoa da, beraz, bizi-kalitatea eta jarduera sozial, kultural eta ekonomikoen aniztasuna bermatzea hiriaren nortasunerako hain garrantzitsua den eremu sinbolikoan.

Parte Zaharrerako ekintzak.

_ **Parte Zaharreko eremu asearen izendapena mantentzen da.** Hots, ezin da martxan jarri inolako ostalaritza- edo ostatatze-jarduera berririk.

_ **Espazio publikoaren kontrol-ordenantza** bat Alde Zaharreko **ostalaritza** eta **merkataritzarentzat**.

_ **Espazio publikoaren erabilera-plan bat** Parte Zaharrean **ekitaldiak** antolatzeko, jarduera guztiak leku berean pilatu ez daitezen eremuak dibertsifikatuz.

Bestalde, arreta berezia egingo zaie Zabalgunearen ekialdea, Kaia eta Gros auzoari. Neurriak hartuko dira ingurune zaugarrienetan hazkundera geldiarazteko. Ez da baimenik emango hotel edo erabilera turistikoko etxebizitza berririk irekitzeko eta zorrotz kontrolatuko dira.

GURE IBILBIDE-ORRIA



05

BERTAKO KULTURARI ETA NORTASUNARI EUTSI: BENETAKOTASUNA_

Egunero, markak, joerak, produktu kulturalak eta modak partekatzen ditugu denok. Eta elkarren antz geroz eta handiagoa dugu munduko bazter guztietako herritarrok. Gauza bera gertatzen zaie hiriei ere.

Gure funtsa, gure nortasun propioa..., hori dugu bereizgarri, eta hori zaindu nahi dugu. Halaber, horrek egiten gaitu hiri erakargarria bisitariarentzat.

Gure kulturari, berezitasunei, hirigintzari, arkitekturari eta hiri-antolamenduari zor diegu gure balioaren zati handi bat, eta babestu egin behar ditugu banalizaziotik eta estandarizaziotik.

Hona gure proposamenak.

- _ Martxan jartzea **euskal kultura** eta **historia**, **Donostiako tradizioak** eta hiriaren berezitasunak sustatzeko ekimenak.
- _ **Ostalaritza eta merkataritza bereziari laguntzeko** neurriak hartzea.
- _ **Ondare berezia eta hiri-paisaia zaintzeko** eta kutsadura bisuala prebenitzeko neurriak hartzea.
- _ Eremu amankomunean **zer elementu komertzial erabil daitezkeen zehaztea**, eta haiek kontrolatzea.


06

EUSKARA, DONOSTIATIK MUNDURA_

Zaindu, goretsi eta munduari erakutsi behar diogu gure hizkuntza —euskara—, Europako zaharrena. Gure sustraietan daramagu, eta hura dugu bereizgarri eta nortasun-emaile.

Zenbait ekintza.

- _ Nazioartetik datozkigun bisitarien artean **gure hizkuntza balioesteko** kanpainak.
- _ Bisitatzen gaituztenak **gure hizkuntza** erabiltzera **animatzea**.
- _ **Euskararen erabilera sustatzea** gure **komunikazio-euskarri guztietan** (lehiaketak, webgunerako eduki interaktiboak, sare sozialak...).
- _ **Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea** Donostiako sektore turistikoa.



07

SUSTAPEN MASIBOTIK
ALDENDU, PUBLIKOAK
SEGMENTATU
ETA MERKATU
ESTRATEGIKOAK
HAUTATU_

Donostiarron bizi-kalitatea zaintzeko, ezinbestekoa da zer publiko erakarri nahi ditugun erabakitzea eta zer eskaini behar diegun zehaztea. Ez dugu nahi hiria honda dezakeen turismo masiborik; horregatik, urteak daramatzagu balio erantsi handiko bost ardatz estrategiko hauen inguruan lanean:

- _ MICE turismoa
- _ Turismo kulturala
- _ Turismo gastronomikoa
- _ Premium turismoa
- _ City break turismoa

Ezagutza eta berrikuntza sustatuz.

Arreta berezia eskainiko diogu MICE edo bilera-turismoari. Jarduera estrategiko horrek enpresa-berrikuntzari eta -lehiakortasunari lotutako hiri gisa posizionatzen du Donostia. Gainera lurraldeko industria-, enpresa- eta I+G+b sarea suspertzen ditu eta balio handia sortzen du behe-denboraldian.

08

TEKNOLOGIA
PERTSONEN
ZERBITZURA_

Teknologia eta konponbide adimenduak erabiliko ditugu helmuga turistikoaren garapen jasangarria, gure herritarren bizi-kalitatea eta bisita kalitatea hobetzeko.

Zenbait ekintza.

- _ **Turismo Jasangarriaren Behatokia sortzea.** Hiriko turismoaren azterketa zehatza egingo dugu, aurreikuspenak egin eta datu errealean arabera hartzeko hiriko bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten erabakiak.
- _ **Digitalizazioa.** Donostiako turismoaren sektoreak behar duen gaitasun digitala lor dezan, digitalizazio-prozesurako trebakuntza, aholkularitza eta laguntza eskainiko dugu.
- _ **Helmuga Turistiko Adimenduna.** Eredutxo ezartzeko lanean jarraituko dugu, lehiakortasuna eta hiri turistikoaren garapena hobetzeko.
- _ **Ekintzailtza eta berrikuntza** sustatuko ditugu turismoaren sektorean, baliabide hauek erabiliz: ikerketa-taldeak, klusterrak, beste erakunde batzuekiko lankidetzak, aholkularitza-programak...

GURE IBILBIDE-ORRIA

09

PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA SUSTATU_

Turismo integraleko plan batek ezin du aurrera egin herritarren partaidetzarik gabe. Beraz, funtsezkoa da donostiarrei entzutea, haien parte-hartzea bultzatzea eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana bultzatzea.

Zenbait ekintza.

- _ **Partaidetza-prozesuak**, -topaketak eta -lantegiak antolatzea.
- _ Herritarrei eta bisitariei **hitza emateko baliabideak jartzea**.
- _ Bertakoen eta bisitarien arteko bizikidetzak, **trukea eta elkarlana** hobetzeko ekintzak bultzatzea.
- _ **Inkestak** egitea herritarren artean.
- _ Donostia Turismoaren eta Udalaren sail guztien arteko **koordinazioa** sustatzea (mugikortasuna, garapen ekonomikoa, ingurumena, hirigintza, euskara, partaidetza...).
- _ Hauekiko **lankidetzak** bultzatzea: hiriko enpresa pribatu, eskualde eta hiri-eremuko helmuga turistikoak, eta hiriko, eskualdeko, Europako eta nazioarteko beste erakunde eta sare batzuk.
- _ Elkarlan estuan jardutea **turismoaren sektorearekin** eta gure **enpresa bazkideekin**.

10

BISITARIENTZAKO ZERGAK SORTU, HERRITARREN MESEDEGARRI_

Kostu handia eragiten du Donostiako turismo-baliabideak zaintzeak eta kudeatzeak: hondartzak, ibilbideak, monumentuak, museoak...

Turistek eta txangolariak ere kostu horren parte bat ordaintzea da neurri honen xedea, gastuaren banaketa bidezkoagoa lortzeko. Hala, lortutako dirua gure hiria hobetzeko erabiliko da, eta, halaber, baliabideen erabilera jasangarria sustatzeko.





VISIT-

DONOSTIAKO TURISMO
JASANGARRIAREN PLANA
2023-2027

BIZI

11 JASANGARRITASUNA SUSTATUZ_

Aipatutako neurriez gain, beste batzuk ere ari gara jorratzen, **gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-alarretan turismo jasangarria bultzatzeko:**

_ **Klimaren aldetik neutroa** den hiri bateranzko trantsizioa sustatzea, mugikortasun jasangarria oinarri duela, turismoaren sektorean **ekonomia zirkularraren** printzipioak aplikatuz.

_ **Ingurumen-inpaktua murrizteko** neurriak ezartzea, hala nola karbono-aztarna neurtu eta konpentsatzeko, plastikoaren erabilera saihesteko eta elikagaiak alferrik ez galtzeko.

_ Turismoaren sektorea koordinatzea, **kanpaina eta ekintza sozial, jasangarri eta solidarioak** sustatzeko.

_ Nazioarteko gogoeta-foroak sortzea edo horietan parte hartzea, eta Donostiaren lidergoa sendotzea **turismo eta garapen jasangarriaren gaineko jardun globalean.**

_ Sektorean eta helmugan **berdintasuna** sustatzeko ekintzak martxan jartzea.

_ **Turismo irisgarriaren** lerro bat garatzen jarraitzea, era guztietako beharrak estaliko direla bermatzeko, eta helmuga inklusibo eta kalitatezkoa izateko.



— 04

TALDEAN SORTUTAKO PLANA



**BA AL DUZU IRADOKIZUNEN BAT
GURE HIRIKO TURISMOAREN
KUDEAKETA HOBETZEKO?
GUSTURA IRAKURRIKO DUGU!**



www.sansebastianturismoa.eus

PERTSONA ASKOREN TOPALEKUA_

Gaitasun tekniko handiko jende eta erakunde askoren lanari esker sortu da Donostiako Turismo Jasangarriaren Plana (2023-2027): Visit Bizi, non guztiek egin baitute beren esperientzia, ezagutza eta ikuspegien ekarpena.

Urtebete baino gehiago jardun gara lanean, eta, zurekin partekatu ahal izan baino lehen, hainbat urratsetan garatu da plana. Hona zeinek hartu duten parte: adituak, sektoreko profesionalak, alderdi politiko guztiak, herritarrak eta Donostia Turismoa, zeinak 325 enpresa bazkide baititu, gehienak bertako enpresa txiki edo ertainak.

**DAGOENeko 325 GARA
DONOSTIA TURISMOKO
TOKIKO ENPRESA TXIKI ETA
ERTAINAK, ETA EGUNERO
EGITEN DUGU LAN GURE
HIRIKO TURISMOAREN GEROA
JASANGARRIA IZAN DADIN.**